# 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 62 URAREN ZIKLO INTEGRALA

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 62 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

## SAILAREN MEMORIA

## I. MEMORIA

Arabako Lurralde Historikoko hiriguneetan edateko uraren hornidura eta hondakin uren araztea bermatzea da programa honen helburua.

Bi xede horiei begira, programa honek aurreikusten du aldez aurreko azterlanak, proiektuak eta obrak egitea, hornidura eta saneamendu gaietan eskumena duten toki erakundeen eskaerei erantzuteko.

Hala, zehazki, aurreko urteetan Hornidura eta Saneamendurako 2016-2026 Gida Plana prestatu zen, eta horren testuinguruan idazten dira gaur egun proiektuak eta egiten dira azaleko edo lur azpiko urak aprobetxatzera bideratutako obrak (biltegi arautuak, zundaketak, ponpatze estazioak, banaketa sareak, etab.), baita hondakin uren tratamendutegi eta saneamendu kolektoreak ere.

Gida plan hori egitearen emaitza modura ondorioztatu zen uraren ziklo osoaren kudeaketa eredu berria bultzatu behar dela, ezarritako esparru legala betetzen lagunduko duena; hala, beste aurrerapauso bat emango da lurralde honetako uraren ziklo osoaren bermea eta eraginkortasuna hobetu eta berrantolatzeko.

Programa horren barnean diru sarrerak sortzen dira, orobat, hondakin urak tratatzeko zenbait araztegi elkarrekin ustiatu eta zaintzeko toki erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenen ondorioz.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Programatutako helburuak lortzeko 5.496.093 euroko aurrekontua bideratu da; horietatik 4.739.987 euro erabili dira arlo hidraulikoan azpiegiturak eraiki edo hobetzeko.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

## I. MEMORIA

El objeto de este programa es garantizar el abastecimiento de agua potable y la depuración de las aguas residuales de los núcleos urbanos del Territorio Histórico de Alava.

Para la consecución de este doble objetivo, el programa prevé realizar estudios previos, proyectos y obras que atiendan las demandas de los entes locales competentes en materia de abastecimiento y saneamiento.

Así, en concreto, se elaboró en años anteriores el Plan Director de Abastecimiento y Saneamiento 2016-2026, y en el marco del mismo se redactan actualmente proyectos y se ejecutan obras encaminadas al aprovechamiento de las aguas superficiales o subterráneas (depósitos reguladores, sondeos, estaciones de bombeo, redes de distribución…), así como estaciones de tratamiento de aguas residuales y colectores de saneamiento.

Resultado de la elaboración de ese mismo Plan Director, se concluyó con la necesidad de impulsar un nuevo modelo de gestión del ciclo integral del agua que ayude a dar cumplimiento al marco legal establecido, dando así un paso más hacia la reorganización y mejora de la eficiencia y garantía del Ciclo Integral del Agua en este territorio.

Dentro de este programa se generan también ingresos procedentes de los convenios firmados con varias entidades locales para la explotación y mantenimiento conjunto de varias estaciones depuradoras de tratamiento de aguas residuales.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para el cumplimiento de los objetivos programados se ha dispuesto de un presupuesto final de 5.496.093 €, de los cuales se han destinado a la construcción o mejora de infraestructras en materia hidráulica 4.739.987 €.

**2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 62 URAREN ZIKLO INTEGRALA

Arabako Lurralde Historikoko herriguneetan arazketa bermatzeko helburuaren barruan, Lukiano eta Aperregiko konexio kolektorea Zuiako HUAra lotzeko obrak bukatu dira, 2019an 466.188,74 euroko gastua eginda, eta horrela amaiera eman zaio 2018an hasitako jarduketari.

Halaber, Villanañeko kolektoreko Espejorainoko obren azken ordainketa egin zen. Obra horien helburua zen hondakin ur horiek modu bateratuan tratatzea Gaubeako HUAn.

2019an 141.630,41 euroko gastua egin da.Espejon, SISEUaren eta haren aldameneko etxebizitzen hondakin uren saneamendurako kolektorearen obrak ere gauzatu dira, 2019an 183.235,52 euroko gastua eginda.

2019an bertan, Olabarriko kolektore berriaren obrak hasi ziren, Iruña Okako HUArekin lotu ahal izateko, 150.000 euroko inbertsioarekin. Obra horiek 2020an bukatzea aurreikusi da.

2019an hasi ziren, halaber, Uribarri Gaubeako kolektore-hodi biltzaile berriaren obrak, herrigune horretako hondakin urak Gaubeako HUAn tratatu ahal izateko. Jarduketa horrek 2019an 565.853,5 euroko inbertsioa eragin zuen.

2019an abian jarri zen Gopegi-Ondategiko HUA berria, urte horretan 56.769,83 euroko gastua eginda. Eraikitze lanak 2018an hasi ziren. Bermealdiko lehenengo urtean funtzionamenduaren jarraipena egin da.

Arabako gaur egungo arazketa sistemen funtzionamenduaren kontrol eta eraginkortasuna hobetze aldera, hobekuntzak egin ziren Dulantzi, Agurain, Gaubea, Zuhatzako uhartea, Maeztu, Bernedo, Done Bikendi Harana, Santikurutze Kanpezu eta Izarrako araztegietan; horrek, modu globalean, 24.314,13 euroko inbertsioa ekarri zuen, beste jarduketa batzuekin batera, esaterako Gaubeako prentsako iragazkiko oihalak berritzea, segurtasuna hobetzea Espejoko HUPEan eta hobekuntzak egitea Aguraingo xingola iragazkian eta gainezkabideen kaudalimetroan. Horrez gain, Dulantziko araztegian

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019**

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 62 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

Dentro del objetivo de asegurar la depuración de los núcleos del Territorio Histórico de Alava, se finalizaron las obras del colector de conexión de Lukiano y Aperregi con la EDAR de Zuia, con una inversión en 2019 de 466.188,74 €, dando así por finalizada la actuación iniciada en 2018.

Igualmente se llevó a cabo el abono final de las obras del colector de Villanañe hasta Espejo para el tratamiento conjunto de esas aguas residuales en la EDAR de Valdegovía, con un gasto de 141.630,41 € en 2019.

Se ejecutaron asimismo las obras del colector de saneamiento de aguas residuales de UCEIs y viviendas colindantes en Espejo con un gasto en 2019 de 183.235,52 €.

Durante este mismo año 2019 se iniciaron las obras del nuevo colector de Ollávarre para su conexión con la EDAR de Iruña de Oca, con una inversión de 150.000 €, estando prevista su finalización durante el próximo año 2020.

Igualmente se iniciaron en 2019 las obras del nuevo colector-interceptor de Villanueva de Valdegovía para permitir que las aguas residuales de ese núcleo sean tratadas en la EDAR de Valdegovía. Esta actuación llevó asociada en 2019 una inversión por importe de 565.853,5 €.

En 2019 se puso en marcha la nueva EDAR de Gopegi-Ondategi, con un gasto en ese año de 56.769,83 €, habiéndose iniciado su construcción en 2018. Durante este primer año de periodo de garantía se ha estado haciendo seguimiento de su funcionamiento.

Al objeto de mejorar la eficiencia y control del funcionamiento de los sistemas depuradores actuales alaveses, se llevaron a cabo mejoras en las plantas depuradoras de Alegría, Agurain, Valdegovía, Isla de Zuaza, Maeztu, Bernedo, S. Vicente de Arana, Sta. Cruz de Campezo e Izarra, lo que en global supuso una inversión de 24.314,13 €, incluyendo entre otras cosas actuaciones como la renovación de las telas del filtro prensa de Valdegovía, mejoras de seguridad en la EBAR de Espejo o mejoras en el filtro banda y en el caudalímetro de alivios de Agurain. Además, se llevó a cabo la finalización de los trabajos de incorporación

lohiak deshidratatzeko zentrifugo berria sartzeko lanak amaitu ziren. Azken jarduketa hori 2018an hasi zen, eta 2019an 69.375,32 euroko inbertsioa egin zen.

Saneamenduaren eta arazketaren arloan ere hobekuntzak egin ziren, hala nola Valderejoko parketxeko isurketa puntua kendu eta Lalastrako saneamendu sarera lotu, 25.493,43 euroko gastua eginda, eta 42.547,46 euroko inbertsioa egin zen, Kontrastako urbanizazio obrak aprobetxatuz, hondakin uren ponpaketa berriko hoditeria prest uzteko.

Arabako Lurralde Historikoko herriguneetan hornidura hobetu eta bermatzeko helburua betetzeko, Arabako Errioxako sistema orokorra indartzeko obrak amaitu ziren, Lezan biltegi berria eginda eta hura Guardiako biltegiarekin lotuta. 2019an 569.561,15 euroko gastua egin zen eta, horrekin, bukatutzat jo ziren 2018an hasitako obrak.

Halaber, Gorbeiako hartune urak Askargango gainetik Izoriako EUAra bideratzeko obrak ere amaitu ziren Amurrion, bai eta tratatutako urak Larrinbe eta Axpuruko biltegietaraino bideratzeko obrak ere. 2019an gastua 967.152,38 eurokoa izan zen; obrak 2018an hasi ziren.

Horniduraren arloan, beste jarduketa batzuk ere egin ziren: Dulantziko biltegi berria eraikitzeko obrak hasi ziren, 428.067,50 euroko gastuarekin, zeinak 2020an bukatuko baitira; Zalduondoko Fuente la Madre iturburuaren aprobetxamendurako obrak, guztira 90.590,34 euroko inbertsioarekin; eta Larrazubi eta Fontecharako biltegi partekatu berria eraikitzeko obrak, 388.139 euroko inbertsioa eginda.

Beste jarduketa batzuk ere egin ziren, Alerta Gorriko Urteko Planaren barruan jasotakoak: hornidurarik gabeko arrisku egoerak arintzeko zisterna kamioien bitartez ur hornidura ematea; Villambrosa, Leziñana, Lotza eta Navarreteko zundaketak konpontzea; eta Okondon hartune bat hobetzea, kutsatzerik ez gertatzeko. Larrialdi Gastuetatik guztira 130.030,43 euro bideratu dira.



de una nueva centrífuga para deshidratación de fangos en la planta depuradora de Alegría. Esta última actuación fue iniciada en el año 2018, siendo la inversión en 2019 de 69.375,32 €.

También se ejecutaron actuaciones de mejora en materia de saneamiento y depuración, como la eliminación del punto de vertido del parketxe de Valderejo y su conexión a la red de saneamiento de Lalastra, con un gasto de 25.493,43 €, o los 42.547,46 € invertidos para, aprovechando las obras de urbanización de Kontrasta, dejar preparadas las conducciones del nuevo bombeo de aguas residuales.

En cumplimiento del objetivo de mejorar y garantizar el abastecimiento de los núcleos de población del Territorio Histórico de Alava, se finalizaron las obras de refuerzo del sistema general de Rioja Alavesa con la ejecución de un nuevo depósito en Leza y su conexión al depósito de Laguardia. Se llevó a cabo un gasto en 2019 de 569.561,15€, dando así por finalizadas las obras comenzadas en 2018.

Fueron también finalizadas las obras de conducción de las aguas de las captaciones del Gorbea en Amurrio desde el alto de Askargan hasta la ETAP de Izoria, junto con las de agua tratada hasta los depósitos de Larrimbe y Aspuru. El gasto en 2019 fue de 967.152,38 €, habiéndose iniciado las obras en 2018.

Otras actuaciones en materia de abastecimiento fueron el inicio de las obras de construcción del nuevo depósito de Alegría/Dulantzi con un gasto de 428.067,50 €, trabajos que finalizarán en 2020, las obras para el aprovechamiento del manantial Fuente la Madre en Zalduondo, con una inversión total de 90.590,34 €, así como la construcción del nuevo depósito compartido para Puentelarrá y Fontecha, con una inversión de 388.139 €.

También se llevaron a cabo otras actuaciones incluidas dentro del Plan Anual de Alerta Roja, pudiendo citarse además del suministro de agua mediante camiones cisterna para paliar las situaciones de riesgo de desabastecimiento, la reparación de los sondeos de Villambrosa, Leciñana del Camino, Loza y Navarrete, o la mejora de una captación en Okondo para evitar episodios de contaminación, destinándose en total con cargo a Gastos de Emergencia 130.030,43 €.

## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 62 URAREN ZIKLO INTEGRALA

Eraikuntza obretarako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua betetze aldera, aholkularitza teknikoa kontratatu zen obretan segurtasuna eta osasuna koordinatzearren; 26.060,64 euroko inbertsioa egin zen guztira.

Laguntza teknikoko lanak ere kontratatu dira, topografia, arkeologia eta obra hondakinen kudeaketa kontrolatzeari lotutakoak, guztira 46.308,64 euroko kopuruan; azpiegitura hidraulikoetarako lursailak erosteko transferentziak eta ordainketak egin dira, 278.422,20 euroko balioan.

Proiektuak eta azterlanak idazteko, 85.016,41 euroko inbertsioa egin da. Lan horien barruan sartzen da honako hauek egitea: Artziniegan biltegi erregulatzaile berria egiteko proiektua, Legution hartuneak hobetzeko proiektua, Gesaltza Añanako igerilekuetarako ura hartu eta bideratzeko proiektua, Araian Iduiako ubidea ureztaketarako martxan jartzeko proiektua eta Zirauntza ibaiaren sorburutik hornidura bideratzeko proiektu eguneratua; bai eta beste azterlan batzuk ere, emakidak legeztatzeko edo Arabako arroetan ur masen egoera aurreikusi ahal izateko.

Agurain, Dulantzi, Santikurutze Kanpezu, Izarra, Done Bikendi Harana, Maeztu, Bernedo eta Zuhatzako uharteko herriguneetako araztegiak zaindu eta ustiatzeko hitzarmenaren barruan, 259.238,64 euroko gastua egin zen.

Orobat egin ziren Gaubeako HUAren mantentze lanak, zeinek 104.095,08 euroko kostua izan baitzuten, eta jarraipena izan zuen ur emaria neurtzeko estazioen mantentze lanen kontratuak, 51.132,72 euroko gastua eginda.

2019. urtean, horrez gain, normalean aldundiko teknikariek hilean behin kontrolatzen dituzten sei zundaketa monitorizatu dira, 33.408,1 euroko inbertsioa eginda, eta SIA Alava tresna informatikoari eta ur emaria neurtzeko estazioen webguneari loturiko lanak egin dira; este baterako, SIA Alava plataforma informatikoa AFAren zerbitzarietan integratu da.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 62 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

Al objeto de dar cumplimiento al Real Decreto 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones minimas de seguridad y salud en las obras de construcción, se llevó a cabo la contratación de una asistencia técnica para la coordinación de seguridad y salud de las obras ejecutadas, por un importe de 26.060,64 €.

Se contrataron también trabajos de Asistencia Técnica topográfica, arqueológica y de control de gestión de residuos de obras por un importe total de 46.308,64 €, y se llevaron a cabo transferencias y abonos para la adquisición de terrenos para infraestructuras hidráulicas por valor de 278.422,20 €.

En relación a la redacción de proyectos y estudios se invirtieron 85.016,41 €. Dentro de estos trabajos se incluyen la elaboración del “*Proyecto de nuevo depósito regulador en Artziniega*”, “*Proyecto de mejora de captaciones en Legutiano*”, “*Proyecto de captación y conducción de agua para las piscinas de Salinas de Añana*”, “*Proyecto de puesta en servicio para riego del canal de Iduia en Araia”* y “*Proyecto actualizado de conducción de abastecimiento desde el nacedero del Zirauntza”*, así como otros estudios para la legalización de concesiones o para poder prever el estado de masas de agua en las cuencas alavesas.

En el marco del convenio para el mantenimiento y explotación conjunto de las depuradoras de los núcleos de Salvatierra/Agurain, Alegria-Dulantzi, Santa Cruz de Campezo/Santikurutze Kanpezu, Izarra, San Vicente de Arana/Done Bikendi Arana, Maestu/Maeztu, Bernedo e Isla de Zuaza, se efectuó gasto por importe de 259.238,64 €.

También se llevó a cabo el mantenimiento de la EDAR de Valdegovía con un coste de 104.095,08 €, y se continuó con el contrato de mantenimiento de las estaciones de aforos con un gasto de 51.132,72 €.

Este año 2019 se ha acometido también la monitorización de seis sondeos de los que habitualmente son controlados mensualmente por personal técnico foral, lo que ha supuesto una inversión de 33.408,1 €, y también se han llevado a cabo trabajos asociados a las herramientas informáticas SIA Alava y Web-estaciones de aforo, como por ejemplo la integración de la plataforma

## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 62 URAREN ZIKLO INTEGRALA

Lankidetza hitzarmenak sinatu ziren Dulantziko Udalarekin eta Arabako Ur Partzuergoarekin, Dulantziko edateko uraren biltegi berria eraiki eta lehendik zegoena eraisteko, eta Arabako Ur Partzuergoak kudeaketa ardura eman zuen, Urbide ikuskatzeko sisteman instalazioak sartzeko proiektua egiteko lanak kontratatzeko eta gainbegiratzeko.

2019an amaitu zen Arabako ur partzuergo berria sortzeari loturiko informazioa biltzeko 2018an hasitako laguntza teknikoa, eta 57.982,53 euroko gastua eragin zuen.

Azkenik, 2018an sinatutako hitzarmenaren barruan, 2019an 115.723,61 euroko dirulaguntza eman zaio Urbide Arabako Ur Partzuergoari.

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren jardun hori osatuz, Zerbitzuko teknikariek laguntza teknikoa eman diete toki erakunde eta partzuergoei ur hornidurаren eta saneamenduaren arloan dauzkaten eskumenak erabiltzen laguntzeko asmoz, besteak beste, emakidak legeztatzeko, jarioak hautemateko eta bestelako laguntza teknikoak emateko, gehien-gehienetan.

DIRU SARRERAK

Gaubeako HUAn putzu septikoetako lohiak tratatzearen ondorioz, 3.743,16 euroko diru sarrerak jaso dira.

Zenbait herritako hondakin urak Gaubeako HUAn tratatzeko herri horiekin sinatutako hitzarmenak direla-eta 22.857,48 euro jaso dira eta, era berean, Arabako herriekin kontratu orokor baten barruan eta aldundiak gainbegiratuta haietako araztegiak kudeatu eta ustiatzeko sinatutako hitzarmenen esparruan 214.107,48 euro jaso dira.

Espejon SISEUetako eta alboko etxebizitzetako hondakin uren saneamenduko kolektoreko obrak egiteko, hitzarmena sinatu zen Lurralde Orekaren Sailarekin eta Espejoko Administrazio Batzarrarekin, eta horren ondorioz 117.663,38 euroko diru sarrera izan da.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 62 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

informática SIA Alava en los servidores de la DFA.

Se firmaron convenios de colaboración con el Ayuntamiento de Alegria-Dulantzi y el Consorcio de Aguas de Alava para la construccion del nuevo deposito de agua potable de Alegria-Dulantzi y demolicion del existente, así como la encomienda de gestión por parte del Consorcio de Aguas de Alava para la contratación y supervisión de la elaboración del “Proyecto de integración de instalaciones en el sistema de supervisión de urbide”.

Durante este año 2019 finalizó la asistencia técnica iniciada en 2018 para la recopilación de información asociada a la creación del nuevo consorcio de aguas de Alava con un gasto de 57.982,53 €.

Finalmente, en el marco del convenio firmado en el año 2018, en 2019 se ha subvencionado con 115.723,61 € al Consorcio de Aguas de Alava Urbide.

La actuación del Servicio de Calidad Ambiental se ha completado con la asistencia técnica proporcionada por parte de los técnicos del Servicio a los entes locales y consorcios al objeto de ayudarles en el desempeño de sus competencias en materia de abastecimiento y saneamiento, la cual se traduce habitualmente entre otras, en la colaboración en la legalización de concesiones, la búsqueda de fugas y la prestación de otros apoyos técnicos.

INGRESOS

Derivado del tratamiento de los lodos de fosas sépticas en la EDAR de Valdegovía se han obtenido unos ingresos de 3.743,16 €.

En base a los convenios firmados con varias localidades para el tratamiento de sus aguas residuales en la EDAR de Valdegovía se han obtenido 22.857,48 €, y del mismo modo, en el marco de los convenios firmados con localidades alavesas para la gestión y explotación de sus depuradoras en un contrato global con supervisión foral se han recibido 214.107,48 €.

Para la ejecución de las obras del colector de saneamiento de aguas residuales de UCEIs y viviendas colindantes en Espejo, se firmó un convenio con el Departamento de Equilibrio Territorial y la Junta Administrativa de Espejo resultado del cual se han ingresado 117.663,38 €.

## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 62 URAREN ZIKLO INTEGRALA

Urbide ikuskatzeko sisteman instalazioak sartzeko proiektua garatzeko Urbide Ur Partzuergoak kudeaketa ardura ematearen ondorioz, 17.897,72 euroko diru sarrera izan da.

Azkenik, hornidurarik gabe —alerta gorrian— dauden lurralde historiko honetako toki erakundeei laguntzeko jardunak finantzatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 11ko 25/2017 Foru Dekretua aplikatzearen ondorioz 10.976,19 euro jaso ziren.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 62 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

Resultado de la encomienda hecha por parte del Consorcio de Aguas de Urbide para el desarrollo del “Proyecto de integración de instalaciones en el sistema de supervisión de urbide”, se han reconocido ingresos por un importe de 17.897,72 €.

Finalmente, por aplicación del Decreto foral 25/2017, del consejo de gobierno foral del 11 de abril, que aprueba las bases reguladoras para la concesión de subvenciones dirigidas a la financiación de actuaciones de auxilio a los entes locales de este Territorio Histórico en situación de desabastecimiento, Alerta Roja, se ingresaron 10.976,19 €.